

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Ondasun higiezinaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergen 2015eko ordainagiriak kobratzea

Ondoren zerrendatzen diren udal zergen 2015eko ordainagiriak kobratzeari ekingo zaio:

Landa, hiri eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

Zerga horien ordainagiriak udal bulegoetan ordaindu ahal izango da, astelehenetik ostiralera, jendea atenditzeko ordutegian, 09: 30etik 13: 30era bitartean.

Borondatezko epean ordainduko dira, 2015eko urriaren 19tik abenduaren 18ra, biak barne.

Helbideratuta dauden ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira, 2015eko abenduaren 3an.

Abenduaren 19tik aurrera ordainagiri horiek Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Diru-bilketa Agentziara bidaliko dira, premiamendu bidez kobra daitezten.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da. Langraiz Oka, 2015eko irailaren 29a

Alkate-lehendakaria

JOSE JAVIER MARTINEZ GARCIA